ERRENTERIAKO UDAL ALDIZKARIA | 24. zenbakia | 2022ko abendua

# errenteria
## HERRI BIZIA

## ZINEMA ETA KONPROMISOA




## Derechos Humanos, en pantalla grande

Lau Haizetara elkartea 3. ORR. >>
Negua Lekuonan 6. ORR. >>
Herri Bizia 8. ORR. >>
Giza Eskubideen Zinema Jaialdia 12. ORR. >>
Errenteria Bizia 15. ORR. >>

# Euskara, ezagutza eta kale erabilera
## Conocimiento y uso del euskara en la calle

*2021 urtean euskararen kale erabilera neurtu zen. Horretarako 13.243 pertsonek kalean izandako elkarrizketak aztertu zituen Soziolinguistika Klusterrak Udalak hala eskatuta. Hona zenbait datu, Errenteriako kaleetako euskararen egoera aztertzeko. En 2021 se midió el uso del euskera en la calle. Para ello, a petición del ayuntamiento, Soziolinguistika Klusterra analizó las conversaciones mantenidas en la calle por 13.243 personas. Estos son algunos datos para analizar la situación del euskera en las calles de Errenteria.*

### Hizkuntzen kale erabileraren bilakaera
### Evolución del uso de los idiomas en la calle




### Hizkuntzen kale erabilera sexuaren arabera 2021
### Uso lingüístico en la calle según sexo 2021




### Hizkuntzen kale erabilera, adinaren arabera 2021
### Uso lingüístico en la calle, según edades 2021




### Hizkuntzen kale erabilera haurren presentziaren arabera 2021
### Uso lingüístico en la calle según presencia infantil 2021




### Hizkuntzen kale erabilera, geografia eremuaren arabera 2021
### Uso lingüístico en la calle, según ámbito geográfico 2021




### Euskararen ezagutzaren bilakaera
### Evolución del conocimiento del euskara









# Lau Haizetara, el euskara como referente



**Lau Haizetara Euskaltzaleon Topagunea ha iniciado una nueva era. Esta fase se caracteriza por añadir el trabajo en común con diversos agentes a su tradicional labor de fomento del euskara.**

Lau Haizetara Euskaltzaleon Topagunea nació en 1992 como elemento para la normalización del euskara en Errenteria. Su objetivo era dar pasos para poder vivir en ese idioma. A la hora de formar la asociación tuvieron dos premisas principales: animar y sensibilizar a la ciudadanía para que aprenda y hable el euskara, y a la vez, impulsar la cultura vasca. Para lograr esos objetivos, era indispensable aglutinar a las personas euskoparlantes en torno *Lau Haizetara*. Este año han cumplido 30 años de vida y reúne a unas 140 personas como socias. Dentro de la organización existen, aparte del grupo dinamizador, seis secciones para realizar trabajos específicos.

Durante sus primeros años, las personas que impulsaron el proyecto rebosaban ilusión y ganas de trabajar en torno los temas del idioma y la cultura. Para abordar esos retos se dedicaron tanto a la organización de actos socio-culturales dirigidos a fomentar el euskara como a la creación de la revista mensual *Lau Haizetara*. También hicieron su aparición la organización de eventos puntuales como la llegada navideña de Olentzero y Mari Domingi. Más tarde llegaría la kantu-jira, que se sigue llevando a cabo el segundo sábado de cada més. «Con la kantu-jira sacamos el euskara a pasear a las calles. De cantar en los bares, pasamos a cantar por el centro de la villa, en euskara. Nos juntamos unas 80-90 personas cada vez», resalta Xixilio Maritxalar, miembro del grupo dinamizador de la asociación.

A día de hoy, Lau Haizetara gestiona o ha gestionado cuatro servicios municipales relacionados con la normalización lingüística. Los mismos son Mintzalaguna, Xenpelar Bertso Eskola, Kuadrillategi y Familia jolasean.

Gracias al programa Mintzalaguna, las personas que están aprendiendo euskara, o simplemente quieren





*«1992an sortu zuten Lau Haizetara Euskaltzaleon Topagunea: euskaratik eta euskal kulturatik, euskal komunitatea trinkotzea zuten helburu»*

hablar en este idioma pueden hacerlo de forma informal en grupo. A día de hoy día hay aproximadamente una docena de grupos organizados por Lau Haizetara.

La asociación también gestiona varios programas que tienen que ver con el ocio en euskara de los y las adolescentes de la villa (Kuadrillategi), así como el programa familiar Familian Jolasean. Del mismo modo, van a reactivar el grupo de lectura fácil, para que aquellas personas que no tengan la suficiente confianza en el uso del idioma, la adquieran; se reunirán una vez a mes, con un dinamizador, para 'soltar la lengua' en este idioma.

Hasta hace no mucho Lau Haizetara ha coordinado Xenpelar Bertso Eskola, que recientemente ha iniciado su andadura en solitario, para ganar autonomía, en un proceso acordado por ambas partes. Xenpelar también mueve a decenas de errenteriarras de todas las edades en los diferentes grupos de trabajo que tiene, incluyendo a niñas, niños y personas adultas.

## Trabajo en común

Después de más de dos décadas trabajando de esa forma, entre 2018 y 2019 decidieron dar un paso al frente. Hay que remontarse a 2013 para entender el por qué de dicha decisión: aquel año nació el movimiento experimental Saretuz, el cual, brevemente explicado, quería trabajar desde el euskara con todas aquellas asociaciones y colectivos que los deseasen para incidir en la vida social de Errenteria. En ese contexto y con la adhesión de varios miembros de Saretuz llegaron nuevos tiempos para Lau Haizetara, que se concretaron mediante el proceso participativo llevado a cabo en 2020.

Según Mikel Azkarate, otro de los dinamizadores, el proceso participativo para diseñar el nuevo planteamiento de trabajo se basó en definir un nuevo discurso. El objetivo escogido fue poder realizar otro tipo de prácticas, «creíamos que era el momento de activar nuevas palancas». Es decir, sin renunciar a nada de lo hecho hasta entonces, decidieron incidir más en aspectos relacionados en la construcción comunitaria de Errenteria, teniendo como base el trabajo en común con el tejido asociativo, y siempre desde el euskara. «Buscamos tejer nuevas alianzas. Lau Haizetara, por sí sola, no tiene la fuerza suficiente para definir el futuro de nuestra lengua. Estamos funcionando con programas ya clásicos de Lau Haizetara. Pero vamos a por más, con propuestas de trabajo en común, tanto con las asociaciones como con el Ayuntamiento». Para eso, creen necesario escuchar cuáles son los intereses y las inquietudes del tejido asociativo, para dar respuestas comunes. «Estamos experimentando. Todavía nos queda un largo camino por recorrer», asegura Azkarate.

En ese camino experimental, hay que destacar, por ejemplo, que Lau Haizetara, junto al grupo de donantes de sangre de Errenteria, organiza las extracciones de sangre que se realizan periódicamente en Merkatuzar. Del mismo modo, también tienen activado el programa Elkarrekin Ikasiz, para ayudar a estudiantes que encuentran dificultad a la hora de hacer sus deberes escolares en euskara.

Así, Lau Haizetara también participa en los espacios dinamizados por el ayuntamiento para trabajar sobre la diversidad lingüística local. Cabe recordar que en un estudio recientemente se calculó que en Errenteria se hablan más de 70 idiomas. Otro ámbito de trabajo de esta asociación es el de impulsar las diferentes campañas de Errigora, que buscan ayudar al mismo tiempo a productores y productoras de alimentos de La Rivera Navarra, y al fomento del euskara en dicha zona.

Además de todo lo mencionado anteriormente, también colaboran con diferentes iniciativas para activar el consumo de productos ecológicos producidos por agricultores y agricultoras locales o plantean sesiones de empoderamiento para eusko-parlantes.

«Tenemos que tener la capacidad de ser innovadores, de experimentar. Esta sociedad ha cambia a una gran velocidad y en Lau Haizetara queremos adaptarnos a estos cambios. Queremos situarnos bien en este momento de la historia. Y nuestro camino es la innovación: estamos experimentando en el sector de los cuidados; en la apuesta por la soberanía alimentaria; y en el cambio digital, con la ayuda de Talaios Kooperatiba. Vendrán más proyectos, y esperamos que se nos una más gente para poder llevarlos a cabo», dice Azkarate.

Azkarate se adelanta a la pregunta que algunos podrían realizar: ¿Para qué impulsar el euskara? «El euskara hay que impulsarlo por igualdad, libertad y por justicia. Igualdad, porque si esta sociedad quiere vivir en igualdad, también esa igualdad tiene que existir en el ámbito lingüístico fomentando que la gente que entienda en euskara sea la mayor posible. Libertad, porque cuanta más gente sepa euskara, la ciudadanía será libre de elegir en qué idioma quiere hablar y vivir, cosa que no ocurre hoy en día. Y justicia, porque durante décadas, si no siglos, el euskara ha sido atacado y relegado, y por eso, hay que favorecer el euskara y que se de la igualdad que hace falta, para que seamos libres de usar el idioma que se desea, siempre desde la justicia y la reparación».

Aro berri batean da Lau Haizetara. Berrikuntzarako palankak aktibatzen ari da herrigintzan aritzeko. Bide horretan, 2023aren hasieran beste urrats bat egingo du. Izan ere, Madalen kaleko liburutegi ohia herriko beste zenbait eragilerekin partekatuko baitu. Datorren urtetik aurrera, elkarteak handik garatuko ditu orain arteko dinamikak, eta baita berriak ere.







# *Udal ludoteketako haurrek eraman dute negua Lekuona Fabrikara*













*infórmate del día a día en*
***herriko egunerokotasunaren berri izateko***

**HERRI BIZIA**
herribizia.errenteria.eus



## Elkartasuna, kalean

*Juneren Hegoak celebró su día el 15 de octubre.*



## Filosofar a cualquier edad

*Haurrek sormenaren gainean gogoeta egin dute Lekuonako Filosofiaren Plazan.*





## Ijitoen kultura, herri kultura

*La Semana Cultural Gitana de octubre abrió espacios comunes.*



## La noche más negra

*Orereta Ikastolaren gau beltzak herriko kaleak berpiztu ditu.*







## Beraun kalea, erdigunera

*1,5 millones de euros para la reforma integral de la calle Beraun.*

## 900 kilos más limpio

*900 kilo hondakin atera dituzte herriko erreketatik.*






»

## Elkarrekin, bogan

El Ayuntamiento ha reconocido los logros de Hibaika de este año.




«

## Euskara, a la calle

Euskaraldiarekin bat egin dute ehunka errenteriarrek.

»

## Mikel Izagirre, gogoan eta pilota, irabazle

Mindara ha participado en el Campeonato Internacional de Pelota Adaptada Mikel Izagirre.




Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 24. zenbakia

# //udal taldeen mezuak//

## PARA CONSTRUIR LA ERRENTERIA QUE MERECEMOS, TENEMOS QUE HACERLA ENTRE TODOS Y TODAS

[PSE-EE] Desde el PSE-EE estamos convencidos de que Errenteria se merece un futuro mejor y para construirlo, necesitamos de tu colaboración.

En los últimos días habrá llegado a tu casa un tarjetón con franqueo pagado que tiene el objetivo de recoger las propuestas de todos y cada uno de los vecinos y vecinas que quieran aportar sus ideas.

Ponemos a vuestra disposición, también, nuestros perfiles de RRSS o el email personal del candidato a alcalde, Isaac Palencia (ipalencia@errenteria.eus) que estará encantado de reunirse contigo para construir juntos el pueblo que nos merecemos.

Asimismo, te invitamos a participar en los diferentes procesos deliberativos y charlas que vamos a poner en marcha durante los próximos meses que servirán para poner las bases del futuro de las políticas del municipio.

Necesitamos un pueblo que vuelva a recuperar la fuerza de su comercio, de su cultura y de su industria.

Necesitamos una Errenteria viva de nuevo.

¡Feliz 2023!

## ERRENTERIAK BENETAKO AURREKONTUAK BEHAR DITU

[EAJ-PNV] Errenteriako EAJ-PNV udal taldeak 2023rako udal gobernuak aurkeztutako aurrekontu proiektuari ezeko bozka eman die. Hainbat arrazoik eraman gaitu aurkako bozka ematera. Baina modu orokorrean, esan dezakegu: batetik, aurrekontuan gabeziak antzeman ditugulako, ez direlako gure aurrekontuak, ez dietelako errenteriarren beharrei behar bezala erantzuten, ez zaizkigulako egokiak iruditzen, eta azkenik, gure taldeak aurkeztutako proposamenek ez zituztelako jaso Udal gobernu sostengatzen duten taldeengandik. Gure taldearentzat ezinbestekoa da, aurrekontuetan jasotzen diren proiektuak garatzea, eta azken urteetan hau ez da gertatu. Hainbat proiektuk, oraindik, mahai gainean jarraitzen dute, errenteriarrentzat lehentasunezkoak direnak gure aburuz.

## GURE DESIORIK ONENAK 2023 URTERAKO

[Elkarrekin] Errenteriako Elkarrekin Podemos-IU udal-taldetik jai zoriontsuenak eta 2023 urtean desiorik onenak opa nahi dizkizuegu.

Urte berri feminista, bidezkoa, berdintzailea, ekologikoa eta oparoa izatea desiratzen dugu eta zentzu horretan jarraituko dugu gure lanarekin.

Tras dos largos años de situaciones excepcionales y en un contexto aún complicado, trabajamos porque el 2023 venga cargado de derechos sociales y prosperidad para todo el mundo. Para ello, desde el equipo de gobierno municipal hemos elaborado e impulsado un ambicioso presupuesto para el próximo año en clave propositiva, destinando más recursos a la protección social y con una clara apuesta por la conservación del medio ambiente y la transición a un modelo energético sostenible.

Datozen hilabetetan, hortaz, ildo honetan jarraituko dugu, gure herritarrei opa dizkiegun desio hauek betetzeko lanean.

## GIZA ESKUBIDEEN KULTURA

[EH Bildu] Jakina da kultura denbora pasa baino gehiago dela. Herritarrek entzuten duten musikak, irakurtzen dituzten liburuak edo ikusten dituzten filmek, istorioak kontatzeaz gain, munduaren ikuskera ere transmititzen dute. Hori dela eta, EH Bildutik aurten sustatu dugu Giza Eskubideen Zinema Dokumentalaren I. Jaialdia.

Jaialdi txiki eta jaio berri honek Giza Eskubideen eta euren urraketen barreneko bidaia handia egiten lagundu digu pantailako kontakizunen bidez. 13 emanaldik gogorarazi digute, batetik, Giza Eskubideek duten balioa eta, bestetik, konta ezinak direla balio hori ahazten duten egoerak.

Okerreko egoerak zuzentzeko, lehenengo lana da gaizki dagoena ezagutzea. Ezbairik gabe, egiteko horretan lagungarria izan da lehen jaialdi hau, eta kultura izan da tresna. Izan ere, kulturak garrantzi berezia hartzen baitu oinarrizko Giza eskubideak dituenean gaitzat. Hemen dugu, beraz, giza eskubideen kulturaren adibide bat.





# Giza Eskubideak, zinema pantailetako protagonistak

*Errenteriako Udalak sustatuta eta OzZinema zineklubak antolatuta, Errenteriako Giza Eskubideen Zinema Dokumentalaren lehen jaialdia egin da aurten. Giza Eskubideen sentsibilizazioan eragin nahi dute, udalak gai horrekiko duen konpromisoa berretsiz.*

Errenteriako Udaleko Kultura Aniztasunaren, Giza Eskubideen eta Garapenerako Lankidetzaren departamentuak sustatuta eta Errenteriako OzZinema zineklubak antolatuta, Errenteriako Giza Eskubideen Zinema Dokumentalaren lehen jaialdia egin da aurten, azaroaren 21etik 26ra.

Errenteriako Udalak azaldu du giza eskubideak muinean izango zituen zinema jaialdi bat sortzearen ideia COVID-19ak sortutako konfinamenduaren aurretik datorrela, baina pandemiak hankaz gora jarri zuen nahi hori momentu hartan. Aurten, baina, gai horri berriro heltzeko aukera izan dute, eta egi bihurtu dute giza eskubideak ardatz dituen zinema jaialdi bat sortzearen proiektua.





*Aretoak %80an bete dira batez beste, eta ikusleek jarrera parte hartzailea izan dute.*





Joan den urtera arte egin ohi zen film laburren festibalaren lekukoa hartu du Errenteriako Giza Eskubideen Zinema Dokumentalaren jaialdiak. Sariketa berria ikus-entzunezkoen eskaintza gaurkotzera etorri da. Izan ere, intereseko gai batean zentratu baitu eskaintza, herriko elkarte baten esku utzita elkarlaneko antolakuntza ereduan sakontzeaz gain.

Proiektu hori OzZinema zineklubarekin batera gauzatu dute, udalaren filosofiari helduz, garrantzitsua baita eragileen parte hartzea. «Herri batek bizia du eragileak eta herritarrak aktibo direnean. Gizartea antolatzea ezinbestekoa da. Kasu honetan, OzZinemarekin saretzea aproposa ikusi genuen, eta elkartrukea oso positiboa izan da», jakinarazi du udalak.

Jaialdia eraikitzea «apustu handia» izan dela gaineratu dute, udalaren bultzada handia izan baita. «Giza eskubideek presentzia izatea nahi dugu. Urteak daramatzagu kultur aniztasunaren kontzientzia indartu nahian, eta hori izan da gure asmoa, kontzientzia hori herrian zabaltzea», zehaztu dute. Jaialdia sortzea udalak eta departamentuak giza eskubideekiko duten konpromisoa berresteko beste adibide bat izan da. Inplikazio horren beste indikatzaile bat da Giza Eskubideen Jardunaldien VIII. edizioa, abenduaren 5etik 17ra egin dena, eta mugikortasun askapenean eta hizkuntza aniztasunean ardaztu dena.

Udalaren hitzetan, festibala bi helburu bereizgarrirekin jaio da: munduko bidegabekeriak salatzea, eta istorio konprometituenak irudietan jartzera ausartzen diren zuzendarien sormenezko eta laneko tranpolina izatea. Horrez gain, udalak argi utzi du «giza eskubideen sortzaile konprometitu horiei bultzada bat» ematea izan dela xedeetako bat.

## Hamahiru proiekzio

Jaialdiak iraun duen denboran, hamahiru proiekzioz gozatu ahal izan dute ikusleek, zortzi film labur eta bost luze. Deialdira, aldiz, 120

A finales de noviembre se celebró el primer Festival de Cine Documental y Derechos Humanos de Errenteria, concretamente del 21 al 26 de dicho mes. Ha sido un éxito en todos los ámbitos. Dentro del programa, se ha querido incidir en el aspecto educativo y didáctico. Por eso, el alumnado de tercer y cuarto curso de ESO de la villa acudió a ver una de las proyecciones programadas. Después de ver los documentales, los alumnos y las alumnas pudieron reflexionar sobre los derechos humanos, en una sesión dinamizada por personas expertas en la materia.



proiektu aurkeztu ziren, eta antolatzaileek horien arteko aukeraketa bat egin behar izan zuten.

Udala «asebeteta» geratu da jaialdiarekin, ezarri zituzten aurreikuspen guztiak gainditu baitituzte: «Jendeak gogoz egin dio harrera festibalari. Giza eskubideen formatua marjinalagoa izan ohi da, eta horrelako proiektu bat kaleratzea ausarta izan da. Dena den, jende asko etorri da gugana, aretoak %80ean bete dira batez beste, eta ikusleak oso jarrera parte hartzailearekin aritu dira».

Aurtengoa lehen ekitaldia izan bada ere, udalak iragarri du «aurrera begira ilusioarekin» daudela eta hurrengo urteei begira proiektu horrekin jarraitu nahi dute.

## Sariak, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean

Bestelako helburuak ere izan arren, ezin da ahaztu lehiaketa izan dela, beraz, sariak izan dira. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 10ean egin zen, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean. Sariak ikus- entzunezkoetan zein giza eskubideetan aditu den epaimahai profesional batek erabaki zituen.

Proiekzio luze eta laburrez osatutako jaialdia bada ere, laburrak izan dira soilik lehiaketan parte hartu dutenak. Orotara, hiru izan dira errekonozitutako proiekzioak. Alde batetik, Paula Armijo zuzendariaren *Ecoutez – Moi* filmak publikoaren saria eskuratu du, eta 300 euroko sari ekonomikoa jaso du. «Herritarren parte hartzea sustatzeko, ikusleek film onena bozkatzeko aukera izan zuten proiekzioa ikusten ari ziren bitartean», baietsi du udalak.

Beste bi saridunak Samuel Pastor zuzendariaren *Kambana* eta Alvaro Hernandezen *Aquí seguimos* lanak izan dira. Horien saria, baina, ez da ekonomikoa izan, bestelako errekonozimenduak izango baitituzte. Mirokutana eta Zazpi T'erdi produktoreek lagunduta, batek bere hurrengo proiektua gauzatzeko aukera izango duela aurreratu du udalak. Besteak, aldiz, erakusleiho bat izango du Internet bidezko plataformetan, eta bertan publikatu ahal izango du bere lana. Plataforma horietan harpidetza ordainduko zaie, «erakusleiho berri bat» izango dute.

Sari horiek, gainera, Juanmi Gutierrez eta Ion Arretxe errenteriarren izenak eraman dituzte, «zinema sozialaren defendatzaile, konprometitu eta gerrilla-zinemako langile gisa» gauzatu zuten jarduneragatik oroitu nahi baitituzte: «Erreferentziazko zinema lana egin zuten errealitatea kontatzeko moduan, profesionaltasunetik, errespetutik eta gizatasun sakonetik. Istorioen kontalariak eta bizitzaren kronistak, pasio zinemazale baten argiak bizi izan zituztenak eta gizarte bidegabe baten itzalak jasan zituztenak, zinemaldi honek bere oroitzapenarekin balioan jarri nahi duena».





## Argazki zaharra

Niessen enpresak 1917tik 1983ra arte Errenteriako erdigunean gauzatu zuen bere produkzioa. Oiartzunera mugitu zuten lantegia urte hartan. Herrian utzitako arrastoa handia da, besteak beste, fabrika zegoen inguruan Niessen elkartea, nahiz aisia eta merkataritza gunea daude. Bertan dira gaur egun herriak dituen zinema aretoak. Ondoko irudia 1959ko irailaren 5ekoa da, larunbata. Niessen enpresako IX. Langileen Egunekoa, hain zuzen ere. Irudi oso zinematografikoan, fabrikako emakume langileak eguna hasteko ekitaldira bidean ageri dira, aski pozik.

Argazkia: Gure Gipuzkoa-Niessen Funtsa-Iñaki Arranz

## Ba al zenekien...

### La tasa de paro de Errenteria es del *9,8%*

Según los datos de los que dispone Lanbide a 30 de noviembre, la tasa de paro de Errenteria es del *9,8%*, es decir, hay *1.948* personas apuntadas en las listas del Servicio Vasco de Empleo. De ellas *1.100* son mujeres (con una tasa de paro del *11,4%*), y *848* hombres (*8,4%*). A principios del *2022*, la tasa de paro general de la villa era del *10,3%*, con *2.047* solicitantes de empleo. Yendo a datos anteriores a la pandemia, concretamente a los de 31 de diciembre del *2019*, la tasa de paro de entonces erala misma que la de hoy en día, es decir, del *9,8%*.




## Txoko bat

Zinemarekin edo ikus-entzunezkoen produkzioarekin produkzioarekin harremana duen Errenteriako txoko bat bada, eta hori Jose Luis Ansorena-Musika Plaza da. Izan ere, Juanmi Gutierrez herriko zinemagileak mundura zabaldu zuen toki horren eta herriaren izena, 'La plaza de la música-Musika Plaza' izeneko dokumentalarekin (2010ekoa da). Bertan, Paisa enpresako langileen kasua azaltzen du, amiantoarekin lan egiteagatik gaixotu hil zirenena, tartean haren ama.

# Udal jakinarazpenak, azkar eta erraz

**Udal jakinarazpeanak elektronikoki jaso ditzakezu modu erosoan. Horretarako e-posta helbide bat eta identifikazio digitalerako bide ofizial bat* besterik ez duzu behar.**

# Notificaciones municipales, de forma rápida y sencilla

Puedes recibir cómodamente las notificaciones municipales de forma electrónica. Para ello solo necesitas una dirección de email y un modo oficial de identificación digital*.




***Oraindik ez baduzu, ZU! arreta zerbitzuan BakQ eskuratu ahal izango duzu**

*Si aún no dispones de él, podrás obtener BakQ en el servicio de atención ZU!

ERRENTERIA
UDALA